

## INDARKERIA MATXISTA

# Jarek bere sexu-erasoaren kontaketa zabaldu nahi du

Bilboko Udalak eta zenbait hedabidek neska batek gaugiroan bizitako bortxaketaren berri eman zuten, biktimaren baimenik gabe eta modu sentsazionalistan. Emakumeak sare sozialetan bilatu zituen bestelako aliantzak, berbiktimizazioari aurre egiteko. Bere testigantza harilkatu dugu sexu-indarkerian adituak diren hiru feministaren analisiekin. Erreportaje hau *Pikara Magazine*-n argitaratutakoaren euskarazko bertsioa da.

 JUNE FERNANDEZ  SHU OTERO

**D**emagun Jare deitzen dela eta 20 bat urteko unibertsitateko ikaslea dela. Irailaren 8ko goizaldean lagunekin zegoen Bilbo erdialdeko diskoteka batean. Bere adineko mutil bat ezagutu zuen, ligatu zuten, telefono zenbakiak partekatu, kanpora atera, musukatzeari ekin... eta desiratutako harremana sexu-eraso bilakatu zen.

Mutilak hainbat sexu-praktika inposatu zizkion, kondoi gabeko penetrazioa barne. Jarek bere deserosotasuna eta arbuioa adierazi zizkion eta, azkenik, biktima askok bezala erreakzionatu zuen: blokeoa eta disoziazioa. Bortxaketa amaitu zenean, Jarek lagunei deitu zien; batek aurre egin zion gizon gazteari, besteak biktima espazio seguru batera eramaten zuten bitartean. Gero ospitalera lagundu zuten, eta handik komisariara. Kostata gogoratzen ditu

ordu horiek: “Dena oso azkar gertatu zen, modu automatikoan nenbilen”, dio. Goizaldean bertan atxilotu zuten mutila, eta lehen gaua eman zuen ziegan.

Irailaren 12an, Jarek jakin zuen Bilboko Udaleko talde politiko guztiek eraso gaitzesteko egin zuten adierazpen bateratua zabaldu zutela hedabideek. Orduan ikusi zuen *El Correo*, *El Mundo* eta *Deia* hedabideek ustezko erasotzailearen atxilotetaren berri eman zutela aurreko egunetan. “Shock egoeran geratu nintzen: zerbait intimoa kontaktzen zuten, eta Polizian jarritako salaketaren datu asko ematen. Morboa bilatzen zuten hitzak zerabiltzaten, hala nola ‘eraso basatia’. Ez nekien nola kudeatu”.

Erabat suminduta, Emakunderengana jotzea erabaki zuen, tratamendu mediatiko arduragabe horren aurrean esku har zezakeen galdetzeko. “Deitu egingo

zidatela esan zidaten, eta deiaren zain jarraitzen dut”. Orduan, amak esan zion: “Ezin duzunez saihestu komunikabideetan agertzea, baliatu arreta zure ahotsa entzun dadin”. Eta horrela iritsi zen Jare *Pikara Magazine*-ra.

## MASA-KOMUNIKATZAILE ANONIMOAK

*Pikara Magazine*-ren Instagrameko kontura mezua bidali zuen Jarek, baita ere Ziortza Karrantza psikologo eta sexologo feministak bere eraso salatzeko argitaratu zuen bideoa partekatzeko eskaera. Sare sozialetan bilatu du inpotentzia eta mina anestesiatzeko bidea. Sexu-erasoen aurreko kontzientzia soziala indartu nahi du, eta ahal dela, erasotzaileak ikus dezala Jare ez dagoela bakarrik.

Cristina Fallarás kazetari eta idazle madrildarrak egunero argitaratzen

ditu indarkeria matxisten dozena bat testigantza anonimo bere Instagrameko kontuan -75.000 jarraitzaile inguru ditu-. "#MeToo dinamika piztu zenean, eta hurrengo urtean #Cuéntalo, emakumeok sareak hartu genituen, lekukotasunetik eta intimitatetik, masa-komunikazioko mekanismoak zirela ulertu genuelako. Agerian jarri genuen komunikabideek eta erakundeek ez zituztela gure kontaktak jasotzen. Orduan, sare sozialak okupatu egin ditugu, gure espazioa ez direla jakinda, ebatsi diguten memoria kolektiboa sortzeko", azpimarratu du.

"Hau ez dut nahi zuk argitaratzea". "Ezin dut datu askorik eman, prozesu judizialean nagoelako". Jare neska gazte irekia eta adierazkorra da, baita zuhurra ere. Hasieratik argi izan du bere identitatea gorde nahi duela eta ezin duela erasotzailea publikoki seinatu. Hedabideek eta udalak bere datu pertsonalak eman ez dituzten arren, eraso albiste bihurtu dute baimenik gabe. Norma Vazquez psikologoak, Sortzen aholkularitzaren zuzendariak, formazioak ematen dizkie maiz erakundeei, komunikabideei eta mugimendu feministari indarkeria matxisten kasuetan esku hartzeko moduari buruz. Baiez-tatu du praktika txarra dela albisteak eta komunikatuak argitaratzea biktimari galdetu gabe: "Erantzun publikoak biktimaren osatze prozesuan lagundu behar du, eta ez da hala izango bere borondatea bortxatzen badugu".

Bat dator Fallarás: komunikabide baten biktima baten berri ematen duenean haren baimenik gabe, "emakume hori seinatzen ari da segurua eta ardurasua ez den espazio batean". Kazetaritza-kultura hegemoniko hori kontrajarri du bere Instagramen sortu duen espazio kolektiboarekin: "Emakumeek

esaten didate izugarri sendagarria egiten zaiela haien istorioak kontatzea eta, batez ere, besteenak irakurtzea".

Kazetariak #MeToo eta #Cuéntalorekin ikasi zuen emakumeek bizitako erasoak publikoki izen-abizenekin salatzea joera "maltzurra" izan zela, eraso eta biktimizazio berriak eragin zituelako. Hala, bere Instagramen emakumeen identitatea babesten duenetik, haurtzaroko sexu-abusuen lekukotzak ugaritu egin dira, horien biktimentzat bereziki premiazkoa baita anonimotasuna.

Jarek nahikoa eta sobera matxismo pairatu du auzitegian kautelazko neurriak eskatzeko -xehetasunak *off the record* kontatu dizkigu-, epaiketa mediatico bati ere aurre egiteko.

"Erantzun publikoak biktimaren osatze prozesuan lagundu behar du, eta ez da hala izango bere borondatea bortxatzen badugu"

**Norma Vazquez,**  
**psikologoa**

### ERRUA, NAZKA... ETA AHIZPATASUNA

Alkandora estanpatu eta koloretsua jantzita agertu da Jare elkarrizketara, uztai-belarritako handiekin eta urduritasuna ezkututzen duen irribarre zabal batekin. "Ahal dudan moduan nabil aurrera egiten. Unibertsitatera joaten naiz, amak errutina mantentzea agindu didalako;

bestela, ez nintzateke ohetik aterako. Klasean nago, baina ez banengo beza-la. Batzuetan atera egin behar izaten dut, irudiak datozkidalako eta negargura ematen didalako. Ez dut nahi jendea konturatzea zein gaizki nagoen, ezta nire ama ere. Dutxan sartzen naiz negar egiteko. Akats hori daukat txikitatik: ez zait gustatzen jendeak nire zaurgarritasuna ikustea".

Erasoak bere osasun fisiko eta emozionala kaltetu ditu. Argaldu egin da eta antsietate atakeak ditu, okerrena gaue-tan: lo egiteko pilulak hartzen dituen arren, ohean etzate hutsa jasanezina egiten zaio, eraso berririko bizitzen duelako. Hurrengoa idatzi du mugikorreko ohar batean gaueko 4:00etan: "Ezin dut gehiago, hamabost egun daramatzat horrela. Sentitzen dut ez dudala ezer balio. Ez dut neure burua ispiluan ikusten. Barkadade handia sentitzen dut. Hil egin nahi dut, hau guztia buka dadila. Noiz amaituko da? Ezin dut gehiago".

Hamabi urte igaro dira *Yo quería sexo, pero no así* (Sexua nahi nuen, baina ez horrela) erreportajea *Pikara Magazine*-n argitaratu zenetik. Protagonistak, Blancak, hamar urte behar izan zituen bere "lehen aldia", 18 urterekin, sexu-erasoa izan zela identifikatzeko. Erreportajeaz azaldu genuen sexu-askatasunaren aurkako delitu gehienetan erasotzaileak biktimen ezagunak direla, eta maiz emakumeak desiratutako harreman bat dela abiapuntua.

Vazquezek erreportaje horretan baieztatu zuen, bere ikerketa batetik abiatuta, emakume askok ez zituztela indarkeria gisa identifikatu sexu-erasoak; izan ere, presioagatik, xantaigatik edota indarkeria fisikoa saihesteagatik amore eman zuten, uste zuten onartu zutela sexu-harremana, edo haien errua izan zela.



Ana Galarraga - Petti

**FRANKENSTEIN  
AGURGARRIA**

Victor Frankenstein gutun musikatua

Hitzaurrea Mari Luz Esteban

Hitzostea Miren Agur Meabe

**elkar** elkarargialetxea.eus







Alabaina, gauza asko gertatu dira azken hamarkadan, Fallarásék aipatutako kanpaina biralez gain: sanferminetako talde bortxaketa, zeinaren epaiketak manifestazio jendetsuak eragin zituen; greba feministak; 'Soilik baietz da baietz' legea... Horrek guztiak balio izan al du emakumeek sexu-erasoak argi identifikatzeko? Eta estigma eta errua murrizteko?

WhatsAppeko audioen bidez erantzun digu psikologoak, Iruñeko sexu-indarkeriei buruzko kongresu baten amaieran: "Sexu-indarkerien aurreko emakume gazteen erantzunak aldatu direla nabarmendu dugu. Diskurtso feminista erabat barneratu ez dutenean ere, ulertzen dute ez direla erasoen errudunak, eta ez dituztela zertan onartu".

Jareri soilik behin busti zaizkio begiak elkarrizketan: errua sentitzen duen galdetu diodanean. "Bai". Negarrari eutsi, eta hizketan jarraitu du. "Gaizki sentitzen naiz, ez nuelako zuhur jokatu mutil horrekin diskotekatik atera nintzenean". Hori bai, badaki eraso bizi izana ez dela bidezkoa, eta horregatik tematu da salaketa publikoarekin. Vazquezek "justiziaren zentzu" horretan ikusten du, hain zuzen ere, "errua murrizteko antidotoa", eta mobilizazio feministen zein legegintza esparruko aurrerapenen emaitza dela aldarrikatu du.

Alabaina, beste emozio bat gailendu da Jareren diskurtsoan: nazka. Erasotzailearekiko, baina baita ere bere gorputzarekiko. "Sexu-erasoen testigantzetan gehien errepikatzen den hitza da, lotsa eta errua baino gehiago, elaborazio bat eskatzen ez duen gorputzaren erreakzio gordina delako. Emakume askok aipatzen dute behin eta berriro dutxatzeko beharra", berretsi du Fallarásék.

Hala eta guztiz ere, Jareren kasuak beste belaunaldi-aurrerapen bat erakusten du, Sortzen-eko zuzendariak nabarmendu duenez: biktima asko lagunek babestuta joaten dira salatzerako edo laguntza psikologiko eske. Bat dator Karranza: "Egun sexu-indarkeriaren begirada askoz kolektiboagoa da, jada ez da hainbeste bizi bakardadean, batez ere espazio publikoko erasoen kasuan".

## INORK EZ DU ERASOTZAILE SENTITU NAHI

Eta gizonak? Eragina izan al du gazteengan adostasunaren inguruko diskurtso sozialak? Joera polarizatu bat deskribatu du Karranzak: "Asko kontzientziatuta daude: tentuz jokatzeko dute, ados-

tasuna ziurtatu nahi dute, ez dutelako erasotzaile sentitu nahi. Baina beste zenbaitek ez du ezer ulertu, eta haiengan jarri behar dugu fokua. Tamalgarrria da udalak hiriko puntu beltzetan jartzea azpimarra, mutilekin prebentzio-hezkuntza egin ordez. *Rol-playing* bidezko ikastaroak egin beharko lituzkete, guk autodefentsa feministan egiten dugun bezala". "Sexu-erasoak ekitzeko behin betiko gida" prestatu du sexologoak Gurenduz bere gabinetean, gizonen zuzendua.

Sexu-indarkeria salatu duten emakumeen testigantzetan maiz agertzen da kezka hau: jabetu al ziren gizonak bortxatzen ari zirela? Karranzak bereziki sumatzen du joera hori bikotearen eremuko erasoetan: "Emakumeak zalan-tzan jartzen du bere mugak behar bezain argi azaldu ote zituen, baita ezezko bat zela adierazten duten frogak fisikoak edo ahozkoak daudenean ere".

---

Cristina Fallarás kazetariak  
#MeToo-rekin ikasi zuen  
emakumeek bizitako erasoak  
publikoki izen-abizenekin  
salatzea joera "maltzurra"  
izan zela

Jarrera paternalistak alboratzeko deia egin du Fallarásék: "Gizonek eta mutilek guk bezainbeste dakite. Kanpaina instituzionalak nonahi ikusten dituzte. Jakina, badakite bortxatu dutela; aitzakia gisa esaten dute ez zirela konturatu neskaren desio faltaz".

Norma Vazquezek gaineratu duenez, erasotzaile gazteek "diskurtso biktimita baliatu dute" (emakumeak txarrak, gezurtiak, esajeratuak... garela), erruari aurre egiteko modu gisa; izan ere, beren burua erasotzailetzat aitortzeari uko egiten dioten arren, "badakite emakumearen borondatea behartu zutelako eta hori gaizki dagoela".

Nolanahi ere, hiru adituak bat datoz ezinegon batean: oso hedatuta dago gizon gazteak matxistagoak eta oldarko-

rragoak diren aurreiritzia, eta diskurtso heldu horrek ez du onartzen aurreko belaunaldien erantzukizuna. "Mutilak galduta baldin badaude, ez da emakumeen edo feminismoaren errua, baizik eta adineko gizonen ez dietela heldulekurik eskaini, guk neskekin egin dugun moduan", adierazi du Fallarásék.

"Nire lagunei eskatzen diet kontuz ibiltzeko parrandan ateratzen direnean", dio Jarek. Erantzun diot ez dela bidezkoa erasoen aurrean emakumeon askatasuna mugatzea eta izua indartzea, eta mutilekin zer egin beharko genukeen galdetu diot ondoren: "Txikitatik prestatu. Eskolan sexualitateari buruzko hitzaldiak ematen dizkigute, baina ez da 'besteaz' hitz egiten", erantzun du.

'Bestea' horretan, sexu-erasoen prebentzioan, azpimarratu beharko lituzkete erasotzaileek ez dutela sarri indarkeria fisikorik baliatzen emakumearen borondatea eta gorputza behartzeko, baizik eta Vazquezek zerrendatzen dituen beste hamaika estrategia: "Jazarpena, insistentzia, xantaia edota alkohola".

Azken horren ildotik, mendetasun kimikoaren inguruko diskurtso instituzional eta mediatikoa deitoratu du Fallarásék: "Amorrua ematen dit edarian droga bota zioten neskaren imaginarioaren hedapenak, biktima onak eta txarrak sortzen dituelako", dio idazleak. Izan ere, ohikoena da gure protagonistari gertatu zitzaiona: emakumea mozkortu edo drogatu zen bere kabuz, eta egoera horretaz aprobetxatu zen erasotzailea.

Halaber, kazetariak gogoratu du gaueko aisialdia ez dela sexu-indarkeria esparru bakarra, nahiz eta egun gehien ikusten dena izan. Kazetariaren Instagramean emakume helduek kontaktatzen dituzten testigantzak etxean eta lanean kokatzen dira batez ere. Arazoa da zailagoa dela senar, senide edo lan-kide baten eraso zalatzea gaugiroan topatutako ezezaguna baino.

Edonola ere, amaitu dezagun erreportajea beste aurrerapauso bat nabarmentzen. Esan dugu emakume gazteek lagun babestuta handiagoa dutela egun salaketa prozesua abiatze aldera eta, era berean, erasotzaileak inguruko babesa galtzen ari dira, Vazquezek azpimarratu duenez: "Maskulinitasunean pitzadura batzuk agertzen hasi dira. Erasotzaileek badakite neska asko aurrean izango dituztela, baita zenbait mutilen gaitzespena jasoko dutela ere". ●